



EBAZPENA, ELANKIDETZA-LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARIARENA, TELELANERAKO DEIALDIA ARGITARATZEN DUENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko funtzionarioen mahai sektorialean eta langile lan-kontratudunen mahai sektorialean lortutako akordioa betez (Gobernu Kontseiluak 2025eko irailaren 16ko bilkuran onartua, telelanaren eta lan ez-presentzialaren modalitateak arautzen dituena), eta bat etorri Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko enplegatu publikoen zerbitzuak telelanaren bidez ematea oro har arautzen duen dekretuan xedatutakoarekin (uztailaren 18ko 113/2023 Dekretua), honako hau.

Akordio horren 2. artikulua ezartzen duenez, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek ordezkari moduan aplikatu ahal izango dituzte akordioaren aurreikuspenak beren gobernu-organoei hala erabakitzen dutenean, dagokion negoziazio kolektiboa egin ondoren.

Ildo horretan, erakunde publikoko zuzendaritzak langileen ordezkariekin negoziatu ondoren, eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak, 2025eko urriaren 22an egindako bilkuran, erabaki du osagarri gisa aplikatzea Gobernu Kontseiluak 2025eko irailaren 16ko bilkuran onartutako erabakia, telelanaren eta lan ez-presentzialaren modalitateak arautzen dituena.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Xedea.

Zerbitzuak telelanaren modalitatean emateko deialdia argitaratzea, mahai sektorialak lortutako eta Gobernu Kontseiluak onartutako akordioan ezarritakoaren arabera eta hartan jasotako eran.

Bigarrena. Aplikazio-eremua.

Deialdi honetan, eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren zerbitzura diharduten funtzionarioek eta lan-kontratuko langileek parte har dezakete, behin betikoek zein aldi baterakoek.

Hirugarrena. Betekizunak.

1. Langileak betetzen duen lanpostuak telelaneko modalitatean betetzeko modukoa izan behar du, akordioaren 3. artikuluan araututakoaren arabera.

Lanpostuak telelanean betetzeko modukoak diren zehazteko, lanpostu bakoitzeko zereginak kontuan hartuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan telelanaren deialdia argitaratzen duen Enplegu





Publikoko sailburuordearen Ebazpenari erantsitako zereginen katalogoan aurreikusitakoaren arabera katalogatutako lanpostu bakoitzaren zereginak.

2. Interesdunek akordioaren 4. artikuluko betekizunak bete behar dituzte.

3. Telelana hasteko data, gehienez ere hiru hilabete atzeratu ahal izango da, lanpostuan aritu izanaren epea betetzen ez den kasuetarako.

Laugarrena. Eskaera eta prozedura.

Zerbitzuak telelanaren modalitatean emateko eskaerari eta jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, akordioaren 8. artikuluan xedatutakoa bete behar da.

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira (euskadi.eus/egoitza-elektronikoa) egoitza elektronikoaren erregistro orokorraren bidez edo agentzia@elankidetza.eus helbide elektronikoaren bidez, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabidearekin batera (V. eranskina), deialdi honen II. eranskinean jasotako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da, laneko arriskuen prebentzioari, ergonomiari eta laneko osasunari buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko.

II. eranskinean jasotako erantzukizunpeko adierazpenari dagokionez, edozein aldaketa eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren Administrazio eta Zerbitzuen Arloari jakinarazi beharko zaio, III. eranskina aurkeztuz. Horrez gain, erabakiaren 8.4 artikuluan aipatutako inguruabarren egiaztagiria erantsi ahal izango dira, IV. eranskineko baremoaren arabera baloratzeko.

Telelanerako eskabidea eta harekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, eta langileen arloan eskumena duen organoak akordioaren 8.6 artikuluan arabera behin-behineko ebazpena eman ondoren, langileak egiaztatu behar du nahitaezko prestakuntza duela, eta konpromisoen dokumentua formalizatu (I. eranskina). Bi eginkizun horiek ezinbestekoak dira zerbitzua telelanaren modalitatean ematen hasteko.

Bosgarrena. Iraupena eta zerbitzua emateko araubidea.

Baimena, hasiera batean, urtebeterako da gehienez, baina luza daiteke, akordioan jasotako eran. Asteko lanaldian, eskuarki, bi izango dira telelaneko egunak, salbuespenak salbuespen. Salbuespenok justifikatuta egon behar dute. Asteko lanaldian zerbitzua telelanaren bidez emango den egunek konpromisoen dokumentuan agertu beharko dute, akordioaren 5. artikuluan aurreikusi bezala.

Seigarrena. Onartutako telelanari uko egitea, hura etetea, azkentzea edo baliogabetzea.

Telelana ez da langileen eskubidea, eta, beraz, interesdunak uko egin diezaioke, eta Administrazioak eten edo baliogabetu dezake akordioaren 9. eta 10. artikuluetan jasotako kasuetan.

Zazpigarrena. Ebaluazioa eta jarraipena.

Emandako baimenari eusteko, dena delako konpromisoen dokumentuak dioena bete behar da, eta horren jarraipena eta ebaluazioa egingo dira, akordioaren 13. eta 19. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Zortzigarrena. Interpretazioa.

Zerbitzuak telelaneko modalitatearen bitartez emateko baldintzak eta berezitasunak uztailaren 18ko 113/2023 Dekretuak arautuko ditu ebazpen honetan edo mahai sektorialaren akordioan aurreikusten ez den guztian; dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko enplegatu publikoen zerbitzuak telelaneko modalitatearen bidez emateko nondik norakoak arautu ziren, oro har.

Horretaz gainera, Jarraipen Batzordeak telelanarekin lotuta dauden alderdi guztiak aztertuko ditu, eta hobekuntzak egitea proposatuko du, akordioaren 20. artikuluari jarraituz.

Bederatzigarrena. Indarrean jartzea.

Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Hamargarrena. Errekurtsoak.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoari jarraituz, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

Javier Cortés Fernández
eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako Zuzendaria



ERANSKINAK

I. ERANSKINA: TELELANAREN BIDEZ MODALITATE EZ-PRESENTZIALEAN LAN EGITEARI BURUZKO AKORDIOA

II. ERANSKINA: TELELANEAN ARAUDI ERGONOMIKOA ETA LAN-OSASUNARI BURUZKOA BETETZEAREN ERANTZUKINPEKO ADIERAZPENA

III. ERANSKINA: OHIKOA EZ DEN LEKU BATEKO TELELANAREN JAKINARAZPENA

IV. ERANSKINA: BAREMOA

V. ERANSKINA: ESKAERA



I ERANSKINA

TELELANAREN BIDEZ MODALITATE EZ-PRESENTZIALEAN LAN EGITEARI BURUZKO AKORDIOA

ZERBITZUA:							
ARDURADUNA/GAINBEGIRALEA:							
TELELANGILEA:							
LANPOSTUA (Lanpostu kodea eta dotazioa):							
LANALDIA:							
JARRAITUA - 7:30 Udan - 6:30		UNIFORMEA - 7:15		ZATITUA - 8:00/7:00 Udan - 6:30		MISTOA - 7:30/8:00 Udan - 6:30	
MURRIZKETA GABE		MURRIZKETA EHUNEKOA		MALGUTASUNA			
NAHITAEZKO GUTXIENEO INTERKONEXIO TARTEA (lanaldi bakoitzaren nahitaezko presentziarekin bat datorrena, eta gutxienez lanaldiaren erdia dena:)							
KOORDINAZIO, PRESTAKUNTZA ETA PROIEKTU KOMUNETAN PARTAIDETZA-BILERAK EGITEKO EZARRITAKO EGUN PRESENTZIALA:							
OHIKO BIZILEKUA (AURKEZTU II. ERANSKINA):			BIGARREN ETXEBIZITZA (AURKEZTU III. ERANSKINA)				
Kalea:.....			Kalea:.....				
Herria:.....			Herria:.....				
PK:.....			PK:.....				
TELELANAREN EGUNAK:							
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA			
TELELANAREN EPEA:							
HASIERA: 20		(a)ren	a	AMAIERA: 20		(a)ren	a
TELELANEKO ZEREGINA¹		HELBURUAK		BETETZE ADIERAZLEAK			
JARRAIPEN ETA EBALUAZIOA (jardueren garapena aztertzeko eta ekintza zuzentzaileak eta eragingarriak egin ahal izateko)							
Zereginen jarraipenaren aldizkakotasuna (hamabostean/hilean/hiru hilean behin...):							
Teléfono/Aplicación informática de contacto:							
Helbide elektronikoa							
Sare bidezko lana, Onedrive, SharePoint, Teams...							
Egun presentzialak aldatzeko malgutasuna, langilea inskribatuta dagoen arloaren eta langilearen beharren arabera, _____ ORDU (2)							

¹ A cumplimentar por cada tarea, siguiendo indicaciones y criterios desarrollados en la formación obligatoria de teletrabajo



justifikatuko kasuetan, urgentziazko arrazoiak medio.

- (2) - Kasu horietan, presentzialki izandako lanaldia berreskuratu ahal izango da telelanekotzat hartzen ez zen asteko beste egun batean.

Era berean, telelangileak bere zerbitzuaren arduradunari jakinarazi ahal izango dio lantokian egon dela modalitate presentzian zerbitzuak ematen dituen egunetatik kanpo, gutxienez 48 ordu lehenago, eta justifikatutako arrazoiengatik, aurreko puntuan jasotako ezaugarri berberekin.

(3) Kasu jakin batzuetan, bete beharreko lanpostuak kontuan hartuta, lantokitik kanpoko presentzialtasuna eskatzen duten zereginen egutegi bat erantsi ahalko da, zeregin horien banaketa lanadi presentzial eta telelanaren artean modu orekatuan egin behar dela kontuan hartuta.



II. ERANSKINA

TELELANEAN ARAUDI ERGONOMIKOA ETA LAN-OSASUNARI BURUZKOA BETETZEAREN ERANTZUKINPEKO ADIERAZPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko enplegatu publikoentzako telelanari buruzko uztailaren 18ko 113/2023 Dekretua, Urrutiko Lanari buruzko uztailaren 9ko 10/2021 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta Bistaratze-pantailekin lan egiteari buruzko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzko apirilaren 14ko 488/1997 Errege Dekretua betez, _____-k (izen-abizenak, _____ NANarekin (aurrerantzean, langilea), honako hau adierazten du:

1. Ekipo eta osagarrien gaineko erantzukizuna

Langileak konpromisoa hartzen du telelanaren araubidean bere lan-eginkizunak behar bezala betetzeko ezarritako baldintza ergonomikoak betetzeko. Ildo horretan, honako osagarri eta ekipo gehigarri hauek bere lan-eremuan edukitzeaz eta mantentzeaz arduratzen dela bermatzen du, ergonomiari eta lan-osasunari buruzko araudiak betetzeko, ongizate fisikorako arriskuak saihesteko helburuarekin:

- **Kanpo-teklatura:** Kanpo-teklatu bat erabiliko du, eskumuturrek eta besaurreek jarrera egokia izan dezaten, ahalegin errepikakorra eta beste arazo muskuloeskeletiko batzuk saihestuz.
- **Aulki ergonomikoa:** Aulki ergonomiko bat izateko konpromisoa hartzen du, behar den gerri-euskarria emateko eta altuera eta beso-euskarriak doitzeko, jarrera egokia bermatuz eta giharretako eta bizkarrezurreko minak saihestuz.
- **Mahai egokia:** Ekipamendu informatikoak behar bezala antolatzeko gutxieneko zehaztapenak betetzen dituen lan-mahai bat du, jarrera ergonomikoa ahalbidetzen duena, teklaturako, saguarentzako eta pantailarako behar besteko espazioarekin.

(Xehetasun gehiagorako, I. Eranskinera jo)

2. Lan eremuko higie eta osasun baldintzak

Langileak konpromisoa hartzen du lan-giro osasungarria ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak betetzeko, 486/1997 Errege Dekretuaren xedapenen arabera (486/1997 Errege Dekretua, bistaratze-pantailekin lan egitean bete beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzei buruzkoa). Ildo horretan, honako hauek zaintzeko konpromisoa hartzen du:

- **Argiztapen egokia:** Bere lan-eremua behar bezala argizatuta egotea bermatuko du, begietako nekea eta ikusmeneko eragozpenak saihesteko, argi egokiarekin eta pantailaren gainean itsualdirik eragin gabe.
- **Temperatura eta hezetasuna:** Lan-eremua tenperatura- eta hezetasun-baldintza optimoetan mantenduko du, lan-giro desegokiak eragindako eragozpenak saihesteko gomendatutako estandarren arabera.

3. Interneterako konexioa

Langileak bere eginkizun profesionalak betetzeko Interneteko konexio nahikoa eta egokia edukitzeaz arduratzen da, komunikazioa eta enpresak emandako lan-tresna digitalen erabilera

zuzena bermatzeko behar den gaitasunarekin.

4. Araudi-betetzea

Langileak konpromisoa hartzen du urrutiko lanari aplikatu dakizkiokeen ergonomiaren eta lan osasunaren arloko araudi eta gomendio guztiak betetzeko, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko enplegatu publikoen telelanari buruzko uztailaren 18ko 113/2023 Dekretuan, Urrutiko lanari buruzko 10/2021 Legean eta Bistaratzeko-pantailekin egindako lanari buruzko 488/1997 Errege Dekretuan xedatutakoarekin. Gainera, konpromisoa hartzen du enpresari jakinarazteko bere osasuna eta segurtasuna arriskuan jar dezakeen edozein anomalia edo akats lan-baldintzetan.

Langileak bere gain hartzen du bere lan-eremua eskakizun ergonomikoen arabera egokitzeko erantzukizuna, bere lan-zereginak modu eraginkorrean eta seguruan urrutitik egiteko beharrezkoak diren baldintzak betetzen direla bermatuz.

Data:

Langilearen sinadura:

III ERANSKINA

OHIKOA EZ DEN LEKU BATEKO TELELANAREN JAKINARAZPENA

Izen-abizenak:

Lanpostua:

Serbitzua:

Data:

Zerbitzuko arduradunarentzat

Honen bidez jakinarazten dizuet (data) (e)tik aurrera **telelana ohikoa ez den leku batetik egingo dudala**. Hau da nire eginkizunak betetzeko erabiliko dudan leku berria:

(Helbide osoa: kalea, zenbakia, solairua, P.K., herria)

Telelanaren helbide-aldaketaren jakinarazpena 11. artikuluan xedatutakoaren arabera egiten da. Konpromiso-dokumentua, 113/2023 Dekretua, uztailaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko enplegatu publikoentzako telelanari buruzkoa, eta 4.2 artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioen eta langile lankontratadunen Akordioarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan telelanaren eta lan ez-presentzialaren modalitateak arautzen dituena.

Adierazi behar da aldaketa horrek ez duela eraginik izango nire lan-erantzukizunak betetzean, ezta ezarritako ordutegietan ere.

Berresten dut gune berri honek beharrezko baldintzak dituela lan-ingurune seguru eta eraginkorra bermatzeko, indarrean dagoen legerian ezarritako laneko segurtasunari eta osasunari buruzko araudiak betez.

Zure esanetara naukazu beharrezkotzat jotzen duzun edozein informazio gehigarri emateko.

Adeitasunez,

Sinadura



IV. ERANSKINA

BAREMOA

Baremo hau administrazio-zerbitzu edo -unitate bakoitzean aurkeztutako lanpostuen azpitalde bakoitzeko eskaera guztiei aplikatuko zaie, Akordioaren testuaren 5. eta 8. Artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, honako hauek lehentasuna izango dute gainerako eskatzaileen gainetik: ezkontidea, izatezko bikoteen erregistroan inskribatutako bikotekidea, edo ardurapean dituzten seme-alaba adingabeak, tutoretzako edo familia-harrerako araubidean dauden adingabeak, luzatutako guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duten adinekoak, edo III. Mendekotasun gradua aitortuta duten bizikideak. Administrazio-unitate berean eskatzaile bat baino gehiago badago egoera horretan, eta, Akordioan aurreikusitako baldintzak betez, guztiei ezin bazaie baimendu zerbitzuak telelanaren bidez eman, nahitaez txandakatzeko sistema bat ezarriko da sei hilean behin.

Hauek dira barematu eta, nolanahi ere, metatu daitezkeen aldeak:

a) Babes bereziko egoera hauetako batekin lotutako inguruabarrak:

1. Genero-indarkeriaren biktimak, betiere egoera hori egiaztatzen badute: 3 puntu.
2. Beren eginkizunak betetzean eraso jasane duten pertsonak, edo laneko jazarpenaren biktima direnak, betiere bi kasuetan jasota badago: 3 puntu.
3. Beren eginkizunak betetzean sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena jasane duten pertsonak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 7. artikuluaaren arabera: 3 puntu.

b) Enplegatutako publikoaren lan-osasunarekin lotutako alderdiak: desgaitasun iraunkorrek edo aldi baterakoak.

1. Ehuneko 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortua izatea, edo desgaituen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legearen 1.2 artikuluan ezarritakoaren arabera halakotzat hartua izatea: 3 puntu.
2. Mugikortasunari eragiten dion osasunaren alterazioa, non joan-etorriak gutxitzeak osasuna nabarmen hobetzen lagunduko duen, zerbitzu medikoak egiaztatuta: 2 puntu.

c) Familia eta lan bateragarritasunetik:

1. Ezkontidea, izatezko bikoteen erregistroan inskribatutako bikotekidea edo ardurapeko seme-alaba adingabeak, tutoretzapeko adingabeak edo familia-harreran daudenak, luzatutako guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duten adinekoak edo II. mendekotasun-gradua aitortuta duten bizikideak izateagatik: 2 puntu.
2. Ezkontidea, izatezko bikoteen erregistroan inskribatutako bikotekidea edo ardurapeko seme-alaba adingabeak, tutoretzapeko adingabeak edo familia-harreran daudenak, luzatutako guraso-ahala duten adinekoak, tutoretza edo kuradoretza dutenak edo I. mendekotasun-gradua aitortuta duten bizikideak izateagatik: puntu 1.
3. Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko, tutoretzapeko adingabe bakoitzeko edo familia-harreran dagoen adingabe bakoitzeko, adin hauetan, zehazten den eskalaren arabera:
 - Urtebetera arte, 3 puntu;
 - urtebetetik 3 urtera arte, 2,5 puntu.
 - 3 urtetik gora, 6 urte arte, 2 puntu.



- 6 urtetik gora, 12 urte arte: 1,5 puntu.
 - 12 urtetik gora, 16 urte arte: puntu 1.
4. Guraso bakarreko familia bada: 2 puntu.
 5. II. edo III. graduko mendetasuna duen senide bat edo batzuk izateagatik, baldin eta familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoaren ondorioetarako zaintzaile bada, betiere aurreko kasuetan sartuta ez badaude: 2 puntu senide bakoitzeko.
 6. II. edo III. mendekotasun-gradua duen senide bat edo batzuk izateagatik, baldin eta etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaile badira eta haien familia-zaintzaile eskusiboa bada, bere bizilekuari dagokion foru-aldundiak/gizarte-zerbitzuek emandako ziurtagiriaren arabera, eta, betiere, aurreko kasuetan sartuta ez badaude: 2 puntu haietako bakoitzeko.
 7. Gaixotasun oso larria edo larria duen bigarren mailara arteko senitarteko bat edo gehiago izatea egoera akutuan: 2 puntu senide bakoitzeko.

Gaixotasunaren larritasuna ziurtagiri medikoaren bidez egiaztatuko da.

Ahaideei egindako erreferentzien artean, odolkidetasuneko eta ezkontza-ahaidetasuneko ahaidetasuna sartzen da, eta, azken horren barruan, enplegatu publikoaren eta haren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen odol-ahaidetasuneko ahaideen arteko harremana.

Aurreko apartatuetan ezarritako baremoa kasu hauetan soilik aplikatuko da: ezkontideak edo izatezko bikotekideak jarduera bat egiten duenean bere kontura edo besteren kontura, edo jarduera hori egiten ez badu eta zaintzarako ezindua badago behar bezala egiaztatutako osasun-arrazoiengatik.

d) Adina eta bizilekutik lantokirainoko distantzia: gehienez 10 puntu.

Atal honetako puntuazioa lortzeko (adin-koefizientea), formula hau aplikatuko da, langilearen adina eta bizilekutik lantokira dagoen distantzia (kilometrotan) kontuan hartuta:

$$(Adina-17)/50)^2 * Distantzia/15$$

e) Lanpostuarekin zerikusia duten ikasketak egiteko. Lanpostuarekin zerikusia duten ikasketak egitea: puntu 1.

f) Aurrez aurreko lanaren bidez bakarrik gauzatzea eskatzen ez duten aldi baterako proiektuak edo programak egitea: 0,5 puntu.

g) Lanpostuarekin zerikusirik ez duten arauzko ikasketak egitea, edo bateragarritasuna baimenduta duen sektore publikoan edo pribatuan jarduera bat egitea: 0,5 puntu.

Guztizko puntuazioan berdinketa gertatuz gero, adierazitako ordenan atal desberdinetan lortutako puntuaziorik altuena erabiliko da berdinketa hausteko irizpide gisa.

Berdinketak jarraitzen badu, baimena emango zaio baldintza berdinetan aurreko segidako hamabi hilabeteetan zerbitzuak telelanaren bidez emateko baimenik izan ez duenari. Berdinketak jarraitzen badu, antzintasun eta adin handiena duen eskatzaileari emango zaio, hurrenkera horretan.



V. ERANSKINA / ANEXO V

ESKARIA / SOLICITUD

DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES:

Izena / *Nombre*:

Abizenak / *Apellidos*:

Harremanetarako telefonoa / *Teléfono de contacto*:

Harremanetarako posta elektronikoa / *Correo de contacto*:

LAN DATUAK / DATOS LABORALES:

Postuaren kodea, hornidura barne / *Código del Puesto incluida dotación*:

Zerbitzua / *Servicio*:

Data / *Fecha*:

Sinadura / *Firma*: